

Charles Lindbergh

Abiazioa abentura zen

75 urte bete dira Lindberghek Atlantikoa gurutzatu zuenetik



Charles August Lindbergh, 'Spirit of St. Louis' hegazkin mitikoaren aurrean.

Ramon Olasagasti

Charles Lindberghek berak adierazi zuen ondoen: «Segurtasunak ez, baizik eta abenturak erakarri nau abiaziora; haizearen, altueraren eta hegan egitearen sensazioa maite dut». Izan ere, duela 75 urte hegan egitea, Atlantikoa hegan gurutzatzea, bene-benetako abentura zen. Egun, berriz, hegazkin batean hegan egitea segurtasunaren adierazpide gorena da, Bin Laden eta enparauen baimenarekin, jakina. Lindberghen garaian, Atlantikoa basamortu urdin eta mugagabe bat zen, etengabeko heriotza mehatxua; gaur egungo hegazkinentzat, hiru ordutan igaro daitekeen putzu koskorra baino ez da.

Aspaldikoa du gizakiak hegan egiteko ametsa. 1903an Orville eta Wilbur Wright anaiek beren txoritxar hura hegan jartzea lortu zutelarik, gutxi pentsatuko zuten mende eskas batean abiazioak nolako bilakaera izango zuen. Egurrez, oihalez eta bizikleta zatiz egindako aparailu hura apenas altza zen hiru metro lurretik; 16 kilometro orduko abiadura lortu zuen gehienez, eta 36 metro eskaseko ibilbidea osatu. Airean, hala ere, hegan. Ondoren, militarren eskutik etorri ziren aurrerapean handienak. Urteekin, abiazioak erronkak zailtzen joan ziren, eta Atlantikoa eskalarik gabe gurutzatzea bihurtu zen helburu desiratuena. 25.000 dolarreko saria jartzera iritsi ziren, eta, horrek, jakina, hautagai asko animatu zituen.

Charles Lindberghek 25 urte zituen saioi hartan. Aitaren aldeko aitona-amonak, Suediako miseriatik ihesi, Minnesotan ezarri ziren, eta haiengandik zuen, nonbait, izaera ipurterrea. Nota kaskarrak zirala eta unibertsitatetik kanporatu baino lehen, hiru estatu zeharkatu zituen motorrean; garai hartan zaletu zen abiaziora. Lincoln Standard Aircraft eskolan izena eman eta pilotu akrobatiko eta paraxutista moduan erakustaldiak egiten jardun zuen. Ondoren, armadan sartu zen, eta han bai, bere benetako zaletasunari bide eginik, nabarmen hobetu ziren bere kalifikazioak. Teniente izendatu zutenean, aireko postari gisa lortu zuen lana Saint Louisen. Lanbidean hasi zen ezaguna egiten Lindberghen kondaira: bere posta hegazkinak lau aldiz jo zuen lurra, eta berak beste hainbatetan jauzi egin eta salbatu zuen lepoa.

Hautagai egokia zen Lindbergh. Postari jardunean 2.000 hegaldi ordu pilatu zituen, eta ekinaren ekinez, inbertsore talde bat inguratu eta hegazkin berri bat lortu zuen: zortzi metro luze eta hamalau zabaleko aparailua. *Spirit of Saint Luis* izenarekin bataiatu zuten, nahiz eta herriak *Lindy* izenez ezagutu. Hegazkin txiki haren izpirituak zerikusi gehiago zuen Elkanoren *Victoria* ontziarekin edo Amundsen eta Nansenen *Fram* ontziarekin, egungo Boeing, Concorde eta abarrekin baino. 1927ko maiatzaren 20a zen Roosevelt aireportuan; aireratzeko ordua. Hamabost



75 urte berri

Nolako zura, hainbat aitona zaleak New Yorketik Pariseko Louis motorbata baina new (berria) Erik gazteak 17 naren denbora 10 tro orduko abiazioak ia 300 kilometro gidatu du, gaine

Loak eten ez zuen ametsa

Amerikako Semearen itzala, ospeak itzalia

Parisen 150.000 lagunek harri eta zur egin zioten harrera Lindberghe. Le Bourgeteko aerodromoan elkartutako jendetza hura, ordea, motz geratu zen bi aste geroago New Yorken bildu zen jende emanaren aldean. 40 hegazkin, bi zepelin eta lau milioi eta erdi lagunek egin zioten ongiatorria heroiari. Goizetik gauera, Amerikako Seme bihurtu zen; AEBetako gizarteak maite zuen gazte garai, ilehori, begi urdin eta atsegin hura. Sekulako ospea bereganatu zuen Lindberghek. James Stewarten eta Billy Wilderren *The spirit of St. Louis* filmak (1957) kondairen goi-aldarera igo zuten Linbergh. Gerora, ordea, kalte baino ez zion egin gehiegizko ospe horrek. Hasteko, seme zaharrena bahitu zioten, eta 70 egunetara hilik agertu zen. Gero, Goeringera (Alemania) eginiko bisita baten ondotik liluratuta geratu zen germaniarren gerra hegazkinekin, eta II. Mundu Gerran AEBen parte-hartzearen aurka agertu zen. Hala, nazien aldeko akusazioen eraginez, heroiaren itzala itzaltzen joan zen. Bere bizitzaren hondarrean, Hawaira erretiratu zen. Idatzirik laga zuen han berreskuratu zuela Atlantikoaren gainean bizitako bakardadea, 33 ordutan bere bizitzari zentzua eman zion hutsune hura.

